

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

Auditoria-txostena,
Urteko Kontuak 2017ko abenduaren 31n
eta 2017ko ekitaldiko Kudeaketa Txostena



*Espainieraz idatzitako Urteko Kontuen Ikuskaritza-Txostenaren jatorrizko bertsioaren itzulpen librea.
Desadostasunik balego, espainierazko bertsioa nagusitzen da.*

Urteko kontuei buruzko auditoria-txostena, auditore independente batek emana

Kutxabank Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A.U. sozietatearen batzar orokorrari:

Iritzia

Kutxabank Gaantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión-en urteko kontuak ikuskatu ditugu, 2017ko abenduaren 31ko balantzea, galdu irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta memoria barne, egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak.

Gure iritziz, urteko kontu erantsiek, alderdi adierazgarri guztietan, Fondoaren 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren benetako irudia adierazten dute, baita egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion emaitza ere, aplikatzekoa den finantza-informazioko arau-esparruarekin bat etorritik (memoriaren 2. oharrean identifikatu da), eta, bereziki, horretan bildutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorritik.

Iritziaren Oinarria

Gure auditoria, Espainian kontu-auditorien jarduera arautzeko indarrean dagoen araudiari jarraikiz egin dugu. Arau horiei jarraikiz dagozkigun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu gure txostenean, *Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoriari dagokionez* atalean.

Fondoarekiko independenteak gara, eta beraz etika-eskakizunak betetzen ditugu, independentzia-betekizunak barne, Espainian urteko kontuen gure auditoriari aplikatzekoak direnak kontu-auditorien jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Ildo horretan, kontu-auditoriaren zerbitzuaz bestelako zerbitzurik ez dugu eskaini, eta araudi erregulatzaile horretan ezarritakoa betetz beharrezko independentzia hori kolokan jar zezakeen egoerarik edo gorabeherarik ere ez da gertatu.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure iritzia bermatzeko.

Auditoriaren alderdi garrantzitsuenak

Auditoriaren alderdi garrantzitsuenak, gure judizio profesionalari jarraikiz, aldi honetako urteko kontuen gure auditorian akats materialak egiteko arrisku adierazgarrientzat jo ditugunak dira. Urteko kontu guztien gure auditoriaren testuinguruan eta haiei buruz dugun iritzia osatzerakoan aztertu dira arrisku horiek guztiak, eta beraz, arrisku horiei buruz uste duguna ez dugu aparteko atal batean bereizi.

Auditoriaren funtsezko gaiak**Auditorian nola aztertu diren***Zorroaren balorazioa*

Indarrean dagoen legediaren arabera, inbertsio kolektiboko erakundeen objektu soziala, fondoak, ondasunak edo eskubide publikoak atzematea da, kudeatzeko eta ondasunetan, eskubideetan, baloreetan edo bestelako instrumentuetan, finantzarioak edo ez, inbertitzeko, inbertsorearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada betiere.

Deskribatu den jarduerarekin bat etorritik, Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión-eko ondare garbia, instrumentu finantzarioetan inbertituta dago batez ere. Fondoaren zorroari aplikatu beharreko kontabilitate-politika, gaineratzen den eranskinaren 3. Oharrean, “*Kontabilitate-printzipio eta balorazio-arau esanguratsuenen laburpena*” eta urteko kontuen memoriaren 5. Oharrean, Fondoak 2017ko abenduaren 31n duen *Inbertsio finantzarioen zorroa* xehatzen da.

Alderdi hau Fondoaren auditorian kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsuenetako bat da, zorroaren balorazioak Ondare Garbiaren eguneroko kalkuluan izan dezakeen eta beraz, bere likidazio balioan izan dezakeen eraginagatik.

Fondoak, kudeaketako kontratu bat mantentzen du Kutxabank Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A.U.-rekin kudeaketa sozietate gisa. Kudeaketa sozietateak, Fondoaren, instrumentu finantzarioen arrazoizko balioaren zehaztapenean erabilitako prozedura eta irizpideak ulertu ditugu, egokiak direla eta Fondoaren aktibo guztietarako modu sendoan aplikatzen direla adierazi ahal izateko.

Modu osagarrian, hainbat prozedura egin ditugu Fondoaren finantza-inbertsioen zorroaren gainean, era honako hauek azpimarra daitezke:

Zorroko tituluen gordailuzainaren baieztapenaren lorpena

Erakunde gordailuzainei eskaera bat egitea, Fondoaren zaintza, ikuskapen, kustodia eta administrazio funtzioen garapenean, 2017ko abenduaren 31n Fondoaren zorroan bildutako titulu guztiak existitzen direla egiaztatzeke.

Inbertsio zorroaren balorazioa

Fondoaren finantza-inbertsioen zorroan abenduaren 31n arrazoizko balioan erregistratuta dauden aktiboen balorazioaren egiaztapena, Kudeaketa Sozietateak ekitaldian zehar egindako kalkuluak berriro eginez, azterketaren datan merkatuko balore fidagarriekin kontrastatuz.

Azaldutako prozeduren emaitzetatik, Fondoko zorroaren arrazoizko balioa zehazteko kudeaketa sozietateak erabilitako metodologiak egokiak dira eta gure prozeduren eta kudeaketa sozietatearen artean izandako edozein diferentzia arrazoizko tarte batean mantendu da erantsitako urteko kontuetan barneratutako zenbatekoekin.

Beste informazio batzuk: Kudeaketa-txostena

Gainerako informazioa 2017ko ekitaldiko kudeaketa-txostenari dagokio soil-soilik, eta haren formulazioa Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen administratzaileen erantzukizuna da, urteko kontuen parte ez delarik.

Urteko kontuei buruz eman dugun auditoria-iritziak ez du eraginik kudeaketa-txostenean. Kontu-auditoriaren araudi erregulatzailan eskatutakoarekin bat etorriz, kudeaketa-txostenaren gainean dugun erantzukizuna betetzeko, urteko kontuen kudeaketa-txostenaren egokitasuna ebaluatu behar dugu eta horri buruzko informazioa eman, kontu horien auditoria egitean fondoari buruz dakigunetik abiatuta, eta auditoria egitean ebidentzia gisa lortutakoaz bestelako informaziorik eman gabe. Horrez gain, kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena aplikatzeko den araudiarekin bat datozen edo ez ebaluatzeko eta horri buruz informatzeko erantzukizuna bete behar dugu. Egin dugun lanean oinarrituta ondorioztatzen badugu akats materialak egin direla, horren berri eman beharko dugu nahitaez.

Egindako lanean oinarrituta, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, kudeaketa-txostenean bildutako informazioa bat dator 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotakoarekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datoz aplikatzeko den araudiarekin.

Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileen erantzukizuna urteko kontuei dagokionez

Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileek urteko kontu erantsiak azaltzeko ardura dute, fondoaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen benetako irudia adieraziz, fondoari Espainian aplikatu beharreko finantza-informazioko arauzko esparruarekin bat etorriz. Gainera, urteko kontuak iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolaz arduratuko dira.

Urteko kontuak prestatzean, Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileek bere gain hartu behar dute Erakundeak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko duen ahalmena balioestea, kasuan-kasuan jarduneko enpresarekin zerikusia duten gaien berri emanez, eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileek likidatzeko eta jarduna bertan behera uzteko asmoa izan ezean edota beste alternatiba errealistarik egon ezean.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoriari dagokionez

Gure helburua da arrazoizko segurtasun batekin esan ahal izatea urteko kontuek, oro har, iruzur edo errorearen eraginez egindako akats materialik ez dutela, eta gure iritzia biltzen duen auditoria-txosten bat ematea.

Arrazoizko segurtasunak segurtasun-maila handia esan nahi du, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen araudiari jarraikiz akats material guzti-guztiak detektatzen dituela. Iruzur edo errorearen eraginez gerta daitezke akatsak, eta materializat jotzen dira baldin eta, banaka edo multzoka hartuta, arrazoizkoa bada aurreikustea urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela.

Espainian auditoria-jarduera erregulatzeko indarrean dagoen araudia bete behar duen auditoria den heinean, gure judizio profesionala eman dugu, eta gure jarrera eszeptizismo profesionalean oinarrituta da auditoria osoan. Horrez gain:

- J Iruzur edo errorearen eraginez urteko kontuetan akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta balioetsi ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak aplikatu ditugu eta gure iritzia oinarritzeko moduko auditoria-ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu. Iruzurraren ondorioz akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da errorearen ondorioz



gertatutako akats materialen kasuan baino, iruzurrak kolisioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar ditzakelako berekin.

- J) Auditoriarentzat garrantzitsua den barne-kontrolaren berri izan dugu zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoria-prozedurak diseinatzeko helburuarekin, eta ez fondoaren kudeaketa sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko asmoarekin.
- J) Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-estimazioak arrazoizkoak ote diren ebaluatu dugu, baita fondoaren kudeaketa sozietatearen administratzaileek emandako informazioa ere.
- J) Fondoaren kudeaketa sozietatearen administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea egokia den edo ez ondorioztatu dugu, eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, zalantza materialik bazegoen edo ez ondorioztatu dugu, Fondoak jarduneko erakunde gisa jarraitzeko duen gaitasunaren inguruan zalantza esanguratsuak sorraraz ditzaketen gertaera edo baldintzei loturik. Eskatzen digutenez, zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoria txostenean ohartarazi egin behar dugu urteko kontuetan jasotako informazioaz, edo, informazio hori ezagutaraztea egokia ez bada, iritzi aldatu bat eman behar dugu. Gure auditoria-txostenaren egunera arte lortutako auditoria-ebidentzian oinarritu dira gure ondorioak. Alabaina, litekeena da etorkizuneko gertaera edo baldintzen eraginez Fondoak jarduneko enpresa bat izateari uztea.
- J) Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatu dugu, jakitera emandako informazioa barne, eta urteko kontuek, azpiko transakzio eta gertaerak irudikatzean, benetako irudi bat ematen ote duten aditzera emanez.

Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen administratzaileekin harremanetan jarri gara, besteak beste, honako hauen berri emateko: auditoriaren norainokoa eta auditoria egiteko planifikatutako unea, eta auditoriaren aurkikuntza esanguratsuak, bai eta, auditoria egiten ari ginenean, identifikatutako barne-kontrolaren edozein hutsune esanguratsu.

Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen administratzaileei jakinarazi dizkiogun arrisku adierazgarrien artean, aldi honetako urteko kontuen auditorian guretzat adierazgarrienak zein diren erabaki dugu, eta, horren ondorioz, horiexek izan dira arrisku adierazgarrienak guretzat.

Gure auditoria-txostenean gai horiek guztiak deskribatu ditugu, non eta lege- edo arau-xedapenek gaia jendaurrean ezagutzera ematea debekatzen ez duten.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L. (So242)

José Antonio Simón Maestro (15886)

2018ko apirilaren 20a

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko abenduaren 31ko Balantzea (eurotan adierazita)

AKTIBOA	2017
Aktibo ez-korrontea	-
Ibilgetu ukiezina	-
Ibilgetu materiala	-
Erabilera propioko ondasun higiezinak	-
Altzariak eta tresneria	-
Zerga geroratuen aktiboak	-
Aktibo korrontea	4 021 894,00
Zordunak	-
Inbertsio finantzarioen zorroa	3 112 000,00
Barneko zorroa	3 112 000,00
Zorra adierazten duten baloreak	-
Ondare-tresnak	-
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak	-
Kreditu-erakundeetako gordailuak	-
Deribatuak	3 112 000,00
Bestelakoak	-
Kanpoko zorroa	-
Zorra adierazten duten baloreak	-
Ondare-tresnak	-
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak	-
Kreditu-erakundeetako gordailuak	-
Deribatuak	-
Bestelakoak	-
Inbertsio-zorroaren interesak	-
Inbertsio berankor, zalantzarri edo auzipekoak	-
Periodifikazioak	-
Diruzaintza	909 894,00
AKTIBOA GUZTIRA	4 021 894,00

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharra 2017ko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko abenduaren 31ko Balantzea (eurotan adierazita)

ONDAREA ETA PASIBOA	2017
Partaideei edo akziodunei egotzitako ondarea	296 354,27
Partaideei edo akziodunei egotzitako funts errenboltsagarriak	296 354,27
Kapitala	-
Partaideak	300 000,00
Jaulkipen-prima	-
Erreserbak	-
(Akzio propioak)	-
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-
Bazkideen bestelako ekarpenak	-
Ekitaldiko emaitza	(3 645,73)
(Konturako dibidendua)	-
Erabilera propioko ibilgetu materialaren balio-aldaketen doikuntzak	-
Egotzitako bestelako ondarea	-
Pasibo ez-korrontea	-
Epe luzeko hornidurak	-
Epe luzeko zorrak	-
Zerga geroratuen pasiboak	-
Pasibo korrontea	3 725 539,73
Epe laburreko hornidurak	-
Epe laburreko zorrak	610 000,00
Hartzekodunak	3 115 539,73
Pasibo finantzarioak	-
Deribatuak	-
Periodifikazioak	-
ONDAREA ETA PASIBOA GUZTIRA	4 021 894,00
OROIPEN-KONTUAK	2017
Konpromiso-kontuak	323 126 640,58
Deribatuen eragiketa luzeengatik hartutako konpromisoak	323 126 640,58
Deribatuen eragiketa laburrengatik hartutako konpromisoak	-
Bestelako oroipen-kontuak	3 645,73
IKEak mailegutan lagatako baloreak	-
IKEak garantia gisa jarritako baloreak	-
IKEak garantia gisa hartutako baloreak	-
Kapital nominal harpidetu gabea eta zirkulazioan ez dagoena	-
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	3 645,73
Bestelakoak	-
OROIPEN-KONTUAK GUZTIRA	323 130 286,31

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharra 2017ko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Galdu-irabazien kontua (eurotan adierazita)

	<u>2017</u>
Harpidetza eta/edo errenboltsoen deskontu-komisioak	-
Inbertsio kolektiboko erakundeari ostera lagatuko komisioak	-
Pertsonal-gastuak	-
Ustiapeneko bestelako gastuak	<u>(3 645,73)</u>
Kudeaketa-komisioa	-
Gordailuzainaren komisioa	-
Konpartimentua konpentsatzeagatik sortutako sarrera/gastua	-
Bestelakoak	(3 645,73)
Ibilgetu materialaren amortizazioa	-
Hornidura-soberakinak	-
Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitzak	-
Ustiapeneko emaitza	(3 645,73)
Sarrera finantzarioak	-
Gastu finantzarioak	-
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza	<u>-</u>
Barneko zorroaren eragiketengatik	-
Kanpoko zorroaren eragiketengatik	-
Deribatuekin egindako eragiketengatik	-
Bestelakoak	-
Kanbio-diferentziak	-
Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak	<u>-</u>
Narriadurak	-
Barne-zorroaren eragiketen emaitzak	-
Kanpo-zorroaren eragiketen emaitzak	-
Deribatuekin egindako eragiketen emaitzak	-
Bestelakoak	-
Emaitza finantzarioa	-
Zerga aurreko emaitza	(3 645,73)
Mozkinen gaineko zerga	-
EKITALDIKO EMAITZA	<u>(3 645,73)</u>

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharrak 2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko galdu-irabazien kontuaren parte dira.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria (eurotan adierazita)

A) Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orria

Galdu-irabazien kontuaren emaitza (3 645,73)

Zuzenean partaideei eta akziodunei egotzitako ondarrera egotzitako sarrerak eta gastuak guztira
Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak guztira

Kontabilizatutako sarrerak eta gastuak guztira (3 645,73)

B) Ondare garbiaren aldaketa guztien egoera-orria

	Partaideak	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	(Konturako dibidendua)	Egotzitako bestelako ondarea	GUZTIRA
Jarduera-hasierako saldoak	-	-	-	-	-	-	-
Kontabilizatutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	(3 645,73)	-	-	(3 645,73)
Ekitaldiko emaitzaren aplikazioa	-	-	-	-	-	-	-
Partaideekin egindako eragiketak							
Harpidetzak	300 000,00	-	-	-	-	-	300 000,00
Errenboltsoak	-	-	-	-	-	-	-
Ondarearen bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-	-
2017ko abenduaren 31ko saldoak	300 000,00	-	-	(3 645,73)	-	-	296 354,27

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharak 2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria parte dira.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

1. Jarduera eta arriskuaren kudeaketa

a) Jarduera

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión, aurrerantzean Funtsa, Bilbon eratu zen 2017ko azaroaren 29an. Egoitza soziala Bilbon (Bizkaian) du, Euskadi Plazako 5. zk.an, 27. solairuan.

Funtsa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren (CNMV) Inbertsio Funtsen Erregistroan inskribatuta dago 2017ko abenduaren 22tik, 5.225 zenbakiarekin, eta ordutik Fondo de Inversión (F.I.) kontsiderazioa du legearen ondorioetarako.

35/2003 Legeak 1. artikuluan eta gero egindako aldaketetan xedatutakoaren arabera, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen helburu soziala da publikoaren funtsak, ondasunak edo eskubideak atzematea, kudeatzeko eta ondasun, eskubide, balore eta bestelako tresna, finantzario nahiz ez-finantzario, batzuetan inbertitzeko, betiere inbertitzailearen etekina emaitza kolektiboen funtzioan ezartzen bada.

Funtsaren jarduera kontuan izanik, Funtsak ingurumen-gaietan ez du ez erantzukizunik, ez gasturik, ez aktiborik, ez hornidura edo kontingentziarik, bere ondare, egoera finantzario eta emaitzetan garrantzia izan dezakeenik. Horregatik, ez da ingurumen-gaiei buruzko banakapen espezifikorik egin urteko kontuen memoria honetan.

Funtsaren inbertsio-politika, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean dagokion Erregistroan erregistratuta eta jendearen eskura dagoen Liburuxkan definituta dago.

CNMVren Erregistroen arabera, Funtsaren kudeaketa eta administrazioa Kutxabank Taldeko Kutxabank Gestión, S.G.I.I.C., S.A.U. sozietatearen esku utzita dago.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

Inbertsio kolektiboko erakundeen 35/2003 Legeak, azaroaren 4koak, 68. artikuluan gordailuzaina bereizteari buruz ezarritako baldintzak betez, Kutxabank Gestión, S.G.I.I.C., S.A.U.k Sozietate Kudeatzaile gisa eta Kutxabank, S.A.k Entitate Gordailuzain gisa, prozedura espezifikoko batzuk mantentzen dituzte, bien arteko interes-gatazkak saihesteko xedearekin.

Entitate gordailuzain horrek jagoletza, gainbegiratze, zaintza eta administrazioko funtzio jakin batzuk bete behar ditu Funtsean, indarrean dagoen araudiak agindutakoaren arabera. Honakoak dira funtzio nagusiak:

1. Egindako eragiketak merkatu-erregimenean egin direla egiaztatzea.
2. Egindako eragiketetan, indarrean dagoen araudiak ezarritako koefizienteak eta inbertsio-irizpideak errespetatu direla egiaztatzea.
3. Funtseko partaidetzen likidazio-balioa kalkulatzeko sozietate kudeatzaileak erabili dituen irizpide, formula eta prozedurak gainbegiratzea.
4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera bidali aurretik, Funtsearen aldizkako informazio publikoaren zehaztasuna, egiazkotasuna, kalitatea eta nahikotasuna kontrastatzea.
5. Funtsearen sozietate kudeatzaileak ezarritako komertzializazio-prozedurek, aplikatu beharreko araudia betetzen dutela egiaztatzea.
6. Funtsearen ondarea osatzen duten balore higigarri guztien eta gainerako aktibo finantzarioen zaintza, zuzenean nahiz entitate partaide baten bidez, funtzio hori egitetik eratorritako erantzukizuna kontserbatuz betiere.
7. Balore-likidazioak eta eskudiru-likidazioak dagozkien merkatuak arautzen dituzten likidazio-erregelak zehaztutako epearen barruan jasotzen direla egiaztatzea.
8. Harpidetzek eta errenboltsoek Funtsearen Liburuxkan eta indarrean dagoen legerian ezarritako prozedurak betetzen dituztela segurtatzea.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

Inbertsio Funtsei buruzko lege-araudi espezifikoari lotuta dago Funtsa. Araudi hori jasotzen da nagusiki 1082/2012 Errege Dekretuan, uztailearen 13koan, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea —gero beste aldaketa batzuk izandakoa— garatzeko erregelamendua onartzen duenean. Honako hauek dira Funtzari aplikatzekoa den araudi horren alderdi nagusiak:

-) Gutxienerako ondarea 3.000.000 eurokoa izango da.
-) Funtzak ezingo ditu 100 partaide baino gutxiago izan.
- | Merkatuaren zirkunstantziengatik edo indarrean dagoen araudia bete beharrik, funts baten, edo funtseko konpartimentu baten, ondarea edo partaide-kopurua 1082/2012 Errege Dekretuan ezarritako minimoetatik behera jaisten bada, Erakunde horiek urtebeteko epea izango dute egoera konpontzeko, eta epe horretan eragiketak egiten jarraitu ahal izango dute Erakunde gisa.
-) Funtseko balore higigarriak eta gainerako aktibo finantzarioak ezin dira pignoratu, ez eta inolako garantia gisa eratu ere, salbu Funtzak bigarren mailako deribatuen merkatu ofizialetan egiten dituen eragiketetan garantia gisa balio izateko, gehienez ere tresna horien balorazioan izandako aldaketen ondorioz sortutako galdu-irabazien eguneroko likidazioaren zenbatekoan, baldin eta 5/2005 Errege Lege Dekretuak (martxoaren 11koak, produktibitatea sustatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko larrialdiko berrikuntzei buruzkoak) araututako kontratu-konpentsazioko eta garantia finantzarioko akordioen babesa badute; eta funtzio horretarako legez gaituta dauden Erakundeen zaintzapean egon beharko dute.
-) Gehienezko portzentaje batzuk ezartzen dira hirugarrenetik obligazioei eta inbertsioen kontzentrazioari dagokienez.
-) Likidezia-koefiziente minimo bat bete behar du Funtzak, ondarearen hileko batez bestekoaren %1ekoa. Koefiziente hori gauzatu beharko du eskudirutan, Gordailuzainaren gordailuetan edo ageriko kontuetan, edo beste kreditu-entitate batenetan Gordailuzainak izaera hori ez badu, edo Zor Publikoko baloreen egun batera berrerosketa akordiopeko salerosketetan.
-) Funtzak muga orokor batzuk ditu finantza-tresna deribatutako erabiltzeko merkatu-arriskuagatik eta, halaber, kontralderdiaren arriskuagatik.

Metaketa-funtsa denez, eta Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduen arabera, ekitaldiko emaitza, Mozkinen gaineko zerga kontsideratu ondoren, Funtzaren ondarean geratuko da.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

2018ko otsailaren 28an eratutako garantia baten arabera, Kutxabankek Funtsari 2024ko urriaren 31n garantizatzen dio 2018ko otsailaren 28ko likidazio-balioaren %100, gehi, kasua bada, bi balio hauen arteko maximoa: 2018ko otsailaren 28ko likidazio-balioaren %0,67 eta, positiboa bada, Eurostoxx50 Price indizearen 2018ko martxoaren 1a eta 2024ko urriaren 25a arteko puntuz puntuko bariazioaren %100 (dibidenduen errentagarritasuna jaso gabe), bariazioaren goranzko %8ko mugarekin (indizearen data horietako itxiera-prezioak erreferentzia hartuta). UTB gutxienez %0,10 eta gehienez %1,16 izango da, 2018ko otsailaren 28an harpidetutako eta muga-egunera arte mantendutako harpidetzentzat. UTB harpidetza-dataren araberkoa izango da. Muga-egunaren aurretik egiten diren errenboltsok ez dute errentagarritasun-helburu garantizatu gabe horren onurarik izango, eta litekeena da galera garrantzitsuak izatea.

Kutxabank, S.A. Entitate Gordailuzainak Funtsari emana dion garantia alde bakarreko eta errebokaezinaren bidez, konpromisoa hartu du garantia betetzeko beharko litzatekeen kopurua ordaintzeko Funtsari, kasua balitz.

Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduaren arabera, Sozietate Kudeatzaileak urtean komisiio bat kobratuko du kudeaketa-gastuengatik, Funtsaren ondarearen %2,25etik gorakoa izango ez dena. 2018ko otsailaren 28ra arte, egun hori barne, kudeaketa-komisiioa %0,00koa izan da; 2018ko martxoaren 1etik aurrera, %0,37koa izatera pasatu da kudeaketa-komisiioa.

Era berean, Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduak Entitate Gordailuzainaren ordainsaria ere ezartzen du, zaindutako ondarearen %0,20tik gorakoa izango ez dena urtean. 2018ko otsailaren 28ra arte, egun hori barne, gordailuzain-komisiioa %0,00koa izan da, eta 2018ko martxoaren 1etik aurrera, gordailuzain-komisiioa %0,05ekoa da.

2018ko martxoaren 1etik eta 2024ko urriaren 30era arte, biak barne, honako komisiioak aplikatzen dizkie Sozietate Kudeatzaileak Funtseko partaideei:

Harpidetza: %5 harpidetutako partaidetzen zenbatekoaren gainean.

Errenboltsoa: %2 errenboltsatutako partaidetzen zenbatekoaren gainean.

Gainera, likidezia-leihoak ere badira 2018ko urriaren 31n, 2019ko urriaren 31n, 2020ko azaroaren 2an, 2021eko azaroaren 2an, 2022ko urriaren 31n eta 2023ko

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

urriaren 31n, edo hurrengo egun baliodunean baliogabea bada, eta horietan ez da errenbolto-komisiorik aplikatzen, egun baliodun 1eko aurreabisuarekin.

b) Arriskuaren kudeaketa

Funtsaren inbertsio-politika, eta politika horri lotutako arrisku nagusien deskripzioa, CNMVn dagokion Erregistroan erregistratuta eta jendearen esku dagoen Liburuxkan xehatzen dira.

Funtsak merkatu finantzarioetan egiten dituen eragiketen ondorioz, honako hauek dira dituen arrisku nagusiak:

-) Merkatu-arriskua: Funtsak kontratatzen dituen aktibo finantzarioen merkatu-prezioen mugimendu negatiboen ondorioz galerak izateko arriskua. Arrisku horien artean esanguratsuenak dira Funtsak zorroan dituen tituluen kotizazioak, interes-tasak eta kanbio-tasak.
-) Kreditu-arriskua: kontralderdiak Funtsarekin dituen obligazio finantzarioak betetzeko gaitasunean edo intentzian gertatutako aldaketen ondorioz galera potentzialak izateko arriskua.
-) Likidezia-arriskua: zorroan dituen aktiboak merkatuan diru bihurtzeko garaian zailtasunak dituelako, Funtsak partaideen errenbolto-eskaerei erantzun ezin dienean gertatzen da.
-) Eragiketa-arriskua: galerak eragin ditzakeena gizakiaren errorearen, barne-prozesu desegoki edo akastunen, sistemen hutsegiteen edo kanpoko gertaeren ondorioz.

Sozietate Kudeatzaileak ezarrita ditu merkatu-, kreditu- eta likidezia-arriskuekiko esposizioa eta, halaber, eragiketa-arriskuarekikoa kontrolatzeko behar diren mekanismoak. Alde horretatik, lehen 1.a) apartatuan aipatutako legeak ezarritako koefizienteen kontrolak mugatzen du arrisku horiekiko esposizioa.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi fidela

Urteko kontuak Funtsaren Sozietate Kudeatzaileko Administratzaileek formulatu dituzte, Funtseko kontabilitateko erregistroetatik abiatuta, kontabilitate-gaietan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren lege-xedapenak aplikatuta, Funtsak 2017ko abenduaren 31n zuen ondarearen eta egoera finantzarioaren, eta 2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzen irudi fidela eta benetakoa erakusteko xedearekin.

Honi erantsitako urteko kontuan Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak onartzeko zain daude, baina, Administratzaileen iritziz, aldaketa handirik gabe onartuko ditu.

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu hauek prestatzeko, kontabilitateko eta sailkapeneko printzipio eta irizpideei jarraitu zaie. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 3/2008 Zirkularrean, eta ondoren egindako aldaketetan, jasotzen dira printzipio eta arau horiek funtsean. Printzipio nagusiak 3. oharrean azaltzen dira. Ez dago obligaziozko kontabilitate-printzipiorik, urteko kontu hauetan ondorio esanguratsua izan dezakeenik, eta aplikatu gabe utzi denik.

Funtsaren Sozietate Kudeatzaileko Administratzaileek urteko kontuak prestatzeko erabil dituzten kontabilitate-printzipio eta -politikek, balorazio-irizpideek eta estimazioek eragina dute emaitzetan eta ondare garbiaren zehaztapenean.

c) Partidak elkartzea

Balantzeko, galdu-irabazien kontuko eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orriko zenbait partida elkartuta aurkezten dira, ulerterrazagoak izateko, nahiz eta kasu batzuetan memorian, dagozkion oharretan, informazioa bereizita ere eman den.

d) Kontabilitate-estimazioak eta errore-zuzenketa

Kasu batzuetan, Sozietate Kudeatzaileko Administratzaileek estimazioak egin dituzte urteko kontuetan erregistratuta azaltzen diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuen balorazioa lortzeko. Estimazio horiek aktibo finantzario

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

batzuen arrazoizko balioari eta, halakorik balego, narriaduragatiko galera posibleei buruzkoak dira gehienbat. Estimazio horiek ahalik eta onenak direla iritzi arren, kalkulua egin den unean zegoen informazioan oinarrituta, etorkizuneko gertaerek behartu lezakete estimaziook prospektiboki aldatzera, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Edozein modutan, Funtsaren likidazio-balioan eragina izango dute merkatu-prezioen gorabeherak eta finantza-inbertsiori lotutako bestelako arrisku batzuek.

Urteko kontu hauek, balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera-orria eta memoria hau osatzen duten dokumentuetan ematen diren zifrak eurotan daude, espresuki bestelakorik adierazten denean izan ezik.

3. Kontabilitate-printzipio eta balorazio-arau esanguratsuenen laburpena

Hauek dira urteko kontu hauek formulatzean aplikatu diren kontabilitate-printzipio esanguratsuenak:

a) Funtzionatzen ari den enpresaren printzipioa

Urteko kontuak prestatzean, pentsatu da etorkizunean aurreikusgarria den neurrian Funtsak aurrera jarraituko duela. Beraz, kontabilitate-arauak ez dira aplikatu, globalki edo partzialki eskualdatuko balitz, ondareak izango lukeen balioa edo likidatuko balitz aterako litzatekeen zenbatekoa zehazteko xedearekin.

b) Sortzapen printzipioa

Sarrerak eta gastuak, sortzen diren epealdiaren arabera erregistratzen dira kontabilitatean, noiz kobratzen edo ordaintzen diren kontuan izan gabe.

i. Interes eta dibidenduengatiko sarrerak

Aktibo finantzarioak eskuratu ondoren sortzen diren interesak, sortzapen-aldiaren arabera kontabilizatzen dira, kasua denean, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz, salbu eta inbertsio berankor, zalantzarik edo auzipekoei dagozkien interesak direnean, horiek benetan kobratzen diren unean erregistratzen baitira. Aktibo finantzarioen zorrotik datozen interesen periodifikatzea balantzeko aktiboko epigrafe honetan erregistratzen da: "Inbertsio finantzarioen zorroa- Inbertsio Zorroaren Interesak". Kontu horren kontrapartida galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean erregistratzen da.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

Beste sozietate batzuetako dibidenduak jasotzen direnean, sarrera gisa kontabilizatzen dira, galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean, Funtsak dibidendu horiek kobratzeko eskubidea sortzen den unean.

ii. Komisioak eta antzeko kontzeptuak

Aurretik, zuzenean nahiz zeharka, jasandako komisioen osteralagapenaren ondorioz Funtsak jasotzen dituen sarrerak, galdu-irabazien kontuko "IKEari osteralagatako komisioak" epigrafean erregistratzen dira.

Kudeaketa-komisioak, gordailu-komisioak zein Funtsaren bilakaerarako beharrezkoak diren bestelako kudeaketa-gastuak, galdu-irabazien kontuko "Ustiapeneko bestelako gastuak" epigrafean erregistratzen dira, bakoitzaren izaera kontuan hartuta.

iii. Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza

Aktibo eta pasibo finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntzetatik eratorritako irabazia edo galera, diru bihurtua izan ala ez, Funtsaren galdu-irabazien kontuko "Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak" eta "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza" epigrafeetan erregistratzen da, aldiko dagokionaren arabera.

iv. Sarrera eta gastu ez-finantzarioak

Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

Sarrerak eta gastuak, sortzen diren epealdiaren arabera erregistratzen dira kontabilitatean, noiz kobratzen edo ordaintzen diren kontuan izan gabe.

c) Zordunak

Arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, balio hori transakzioaren prezio bera izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuak gehituta.

Hortik aurrera, kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebetetik beherako epean kobratzea espero den partidak balio nominalaren arabera baloratzen dira.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

Kobratzeko partiden balioaren narriaduragatik sortutako galerak kalkulatzeko, etorkizuneko diru-fluxu estimatuak hartzen dira kontuan, kontabilizatzeko unean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak eta horien atzera-itzultzeak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, gastu edo sarrera gisa.

d) Inbertsio finantzarioen zorroa

Inbertsio finantzarioen zorroko aktiboak, galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzario gisa tratatu dira. Jarraian azaltzen dira zorroan jasotako produktu finantzario nagusiak, eta horien arrazoizko balioa nola zehaztu den:

-)] Zorra adierazten duten baloreak: jaulkitzen dituenarentzat zorra diren baloreak, ordainsari gisa kontratuz ezarritako interes bat sortzen dutenak.
- | Zorra adierazten duten balore kotizatuen arrazoizko balioa, merkatuko kotizazio-prezioen arabera zehazten da, baldin eta merkatua aktiboa bada eta prezioak modu kontsistentean lortzen badira. Ez badago kotizazio-preziorik eskuragarri, arrazoizko balioa azken transakzioaren prezioarekin bat etorriko da, baldin eta transakzioa egin den unetik zirkunstantzia ekonomikoetan ez bada aldaketa esanguratsurik egon.
- | Merkatu aktiborik ez dagoenean zor-tresnarentzat, balorazio-teknikak erabiltzen dira elementu bakoitzaren arrazoizko balioa kalkulatzeko, hala nola bitartekariak, jaulkitzaileak eta informazio-banatzzaileak emandako prezioak, edo, erabilgarri egonez gero, azken aldiaren alderdi interesatu, behar den bezala informatu eta elkarrekiko independenteen artean egindako transakzioen erreferentzia erabiltzea, edo funtsean berdina den beste tresna baten arrazoizko balioa erabiltzea, edo fluxuak deskontatzeko ereduak eta opzioak baloratzeko ereduak baliatzea, kasua denean.
- | Zorra adierazten duten baloreek sortutako interes kobratu gabeak interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatzen dira, eta ekitaldiko emaitzan sartzen dira.
-)] Ondare-tresnak: beste erakunde batzuek jaulkitako finantza-tresnak, hala nola akzioak edo partaidetza-kuotak, jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera dutenak.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

- | Ondare-tresna kotizatuen arrazoizko balioa, balantze-dataren eguneko itxierako kanbio ofizialak ezartzen du, baldin badago, edo, bestela, aurreko lehenengo egun baliiodunekoak edo batez besteko kanbio haztatuak itxierako prezio ofizialik ez badago.
-) Kreditu-erakundeetako gordailuak: Funtsak kreditu-erakundeetan mantentzen dituen gordailuak, salbu "Diruzaintza" epigrafean jasotzen diren saldoak.
- | Horien arrazoizko balioetat hartzen da, inbertsioaren barne-errendimendua eta une bakoitzean indarrean dauden merkatuko interes-tasak berdintzen dituen prezioa.
-) Beste inbertsio kolektiboko erakunde batzuetako akzioak edo partaidetzak: horien arrazoizko balioa erreferentziako eguneko likidazio-balioa edo kotizazio-balioaren arabera ezartzen da. Erreferentziako egunerako likidazio-balioa kalkulatu ez bada, eskuragarri dagoen azkeneko likidazio-balioa erabiltzen da. Inbertsio Libreko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, Inbertsio Libreko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan eta atzerriko antzerako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan egindako inbertsioak direnean, likidazio-balio estimatuak erabiltzen dira.
-) Deribatuak: hor sartzen dira forward eta geroko kontratuetako balio-diferentziak, warrant eta opzio erosi/jaulkiengatik ordaindu/kobratutako primak, trukaketa finantzarioko kontratuei lotutako kobrantzak edo ordainketak, eta, halaber, produktu egituratuetako inbertsioak.
- | Erreferentzia-eguneko itxierako kanbio ofizialaren balioak erabakitzen du horien arrazoizko balioa. Merkatu antolatuetan negoziatzen ez direnean, Sozietate Kudeatzaileak balorazio-eredu bat ezartzen du CNMVren abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrak, eta gero egindako aldaketek, ezarritako baldintza espezifikoaren arabera.

Inbertsioan narriadura nabarmena eta berreskurazina duten aktiboei baja emango zaie, galdu-irabazien kontuaren kargura.

Aktibo eta pasibo finantzarioei balantzean baja ematen zaie, haien jabetzari lotutako arrisku eta onura guztiak funtsean transferitzen direnean.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

e) Aktiboen aldi baterako eskuratzea eta lagapena

Aktiboen aldi baterako eskuratzeak edo ostera lagatzeko ituna duten eskuratzeak direnean, benetan ordaindutako zenbatekoan kontabilizatzen dira, edozein izanda ere azpiko tresnak, aktiboan dagokien kontuan.

Zenbateko horren eta ostera lagatzeko prezioaren arteko diferentzia, sarrera gisa egozten da galdu-irabazien kontuan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Arrazoizko balioaren diferentziak galdu-irabazien kontura eramaten dira, "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza" epigrafera.

Aldi baterako eskuratutako aktiboaren lagapen irmoa, galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako pasibo finantzario gisa erregistratzen da.

f) Ondare-tresnak

Ondare-tresna kotizatuak, kontratatzen diren unean erregistratzen dira, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioan, eragiketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostu esplizituak ere barne hartuta.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondorioz sor litezkeen diferentziak galdu-irabazien kontuan islatzen dira, honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak "Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak" epigrafean edo "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza barneko edo kanpoko zorroaren eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren ala ez kontuan izanda, eta kontrapartida gisa, balantzearen aktiboko barneko zorroko edo kanpoko zorroko "Ondare-tresnak" erabiltzen da.

g) Zorra adierazten duten baloreak

Zorra adierazten duen baloreak, likidatzen diren unean erregistratzen dira, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioan, eragiketari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostu esplizituak ere barne hartuta.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondorioz sor litezkeen diferentziak galdu-irabazien kontuan islatzen dira, honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak "Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak" epigrafean edo "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza barneko edo kanpoko zorroaren eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren ala ez kontuan izanda, eta kontrapartida gisa, balantzearen aktiboko

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

barneko zorroko edo kanpoko zorroko "Zorra adierazten duten baloreak" erabiltzen da.

h) Deribatuen eragiketak, trukaketa finantzarioak izan ezik

Deribatuen eragiketak kontratatzen diren unean erregistratzen dira eta posizioa itxi arte edo kontratuaren muga-egunera arte edukitzen dira, oroipen-kontuetan dagokien epigrafean, konprometitutako zenbateko nominallean.

Garantia gisa gordailututako funtsak, lagatako gordailutzat hartzen dira kontabilitatean eta balantzeko aktiboan erregistratzen dira, "Zordunak" epigrafean dagokien kapituluan. Era berean, garantia gisa hartutako funtsak, hartutako gordailu kontsideratzen dira kontabilitatean eta "Epe laburreko zorrak" epigrafean erregistratzen dira balantzeko pasiboan; hartutako kontraprestazioa, berriz, balantzeko aktiboan erregistratzen da, izaeraren arabera dagokion kapituluan.

Erositako edo jaulkitako opzioen primak, balantzearen aktibo de pasiboko "Deribatuak" epigrafean islatzen dira, eragiketa exekutatu den egunean.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondorioz sor litezkeen diferentziak galdu-irabazien kontuan islatzen dira, honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak "Deribatuekin egindako eragiketen emaitzak" epigrafean edo "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza Deribatuekin egindako eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren ala ez kontuan izanda, eta kontrapartida gisa, balantzearen aktiboko barneko zorroko edo kanpoko zorroko "Deribatuak" epigrafea erabiltzen da.

i) Partaidetzen likidazio-balioa

Funtsaren ondarea zehazteko, eta horrela Funtsa osatzen duten partaidetzen likidazio-balioa kalkulatu ahal izateko, CNMVren azaroaren 26ko 6/2008 Zirkularrean, eta gero egindako aldaketetan, ezarritako irizpideak aplikatzen dira.

j) Harpidetzak eta errenboltsoak

Partaidetzen harpidetzak eta errenboltsoak, benetan harpidetutako edo errenboltsatutako zenbatekoan kontabilizatzen dira, Funtsaren balantzearen pasiboko "Partaideak" kapituluan abonatu edo kargatu, hurrenez hurren.

Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduaren arabera, partaidetzen prezioa izango da interesatuak eskaera egiten duen egun bereko likidazio-balioa, eta horrela

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

zehaztuko da harpidetu edo errenboltsatutako partaidetzen kopurua eta, hala dagokionean, baita errenboltsatu beharreko eskudirua ere. Partaidetzak eskatzen direnetik prezioa benetan ezartzen den arteko denboran, eskatutako zenbatekoa Funtsaren balantzeko pasiboan erregistratzen da, "Harpidetza-eskaerak, oraindik partaidetzak esleitu gabeak" kapituluan.

k) Mozkinen gaineko zerga

Galdu-irabazien kontuan jasotzen da Mozkinen gaineko zergaren gastua. Gastu hori kalkulatzeko kontuan hartzen da zergaren zerga-oinarriaren eta zerga aplikatu aurreko kontabilitate-emaitzaren arteko diferentzien geroratze-efektua, hurrengo ekitaldietan eragina izango duena.

Zerga geroratuen pasiboak beti kontabilizatzen dira; aldiz, zerga geroratuen aktiboak kontabilizatzen dira, soil-soilik, probablea bada Erakundeak, etorkizunean, aktibo horiek eskuratzeko behar adinako irabazi fiskalak izatea.

Galera fiskalak hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko eskubideek, inola ere ez dute aukerarik ematen zerga geroratuen aktibo bat kontabilizatzeko, eta zergaren gastua konpentsatuz kontabilizatzen dira, likidazio-balioa kalkulatzeko den maiztasun berarekin. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak "Bestelako oroipen-kontuak - Konpentsatu beharreko galera fiskalak" epigrafean erregistratzen dira.

l) Eperako baloreen salerosketa

Kontratzen diren unean erregistratzen dira, posizioa itxi arte edo kontratuaren muga-egunera arte, oroipen-kontuetan dagokien epigrafean, konprometitutako zenbateko nominalean.

Kontratu horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondorioz sor litezkeen diferentziak galdu-irabazien kontuan islatzen dira, honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak "Deribatuekin egindako eragiketen emaitzak" epigrafean edo "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza deribatuekin egindako eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren ala ez kontuan izanda, eta kontrapartida gisa, balantzearen aktibo edo pasibo korronteko barneko zorroko edo kanpoko zorroko "Deribatuak" epigrafea erabiltzen da.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

4. Hartzekodunak

2017ko abenduaren 31n, honela banatzen da epigrafea:

	2017
Likidatu gabeko eragiketak	3 112 000,00
Bestelakoak	<u>3 539,73</u>
	<u>3 115 539,73</u>

“Hartzekodunak – Likidatu gabeko eragiketak” kapituluan 2017ko abenduaren 31n jasota dago Funtsak, 1. eta 8. oharretan azaldutako errentagarritasun-helburua lortuko dela segurtatzeko, kontratatutako opzio finantzarioen primen balioa; prima horiek ordaindu gabe zeuden ekitaldiaren itxieran. Urteko kontu hauek formulatu diren egunerako, oso-oso ordainduta zeuzkan Funtsak.

“Hartzekodunak - Bestelakoak” kapituluan jasotzen da, batez ere, ekitaldiaren itxieran ordaintzeko zeuden CNMVren tasen zenbatekoa.

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldian zehar, Funtsak ez du egin legeak ezarritakoa baino geroratze handiagoa metatuta zuen ordainketarik. Era berean, 2017ko ekitaldiaren itxieran Funtsak ez dauka legeak ezarritako epea baino geroratze luzeagoa metatuta duen ordaintzeko saldirik.

5. Inbertsio finantzarioen zorroa

Jarraian azaltzen da xehetasunez 2017ko abenduaren 31n Funtsaren balore-zorroak zuen osaera, aktibo-moten arabera banatuta:

	2017
Barneko zorroa	3 112 000,00
Deribatuak	<u>3 112 000,00</u>
	<u>3 112 000,00</u>

Memoriari erantsitako eta beronen zati den I. Eranskinean xehatzen da Funtsak 2017ko abenduaren 31n zeukan deribatuetako inbertsioen zorroa.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

2017ko abenduaren 31n funtsa komertzializazio-aldian zegoenez (1. oharra), egun horretan gainditu egiten zituen 1082/2012 Errege Dekretuak, uztailaren 13koak, ezarritako kontzentrazio-muga batzuk, baina egoera hori erregularizatuta dago urteko kontu hauek formulatzen diren egunerako.

6. Diruzaintza

Jarraian azaltzen dira epigrafe honen xehetasunak 2017ko abenduaren 31n:

	2017
Gordailuzaineko kontuak	299 894,00
Eskudirutan jasotako garantiak	<u>610 000,00</u>
	<u>909 894,00</u>

2017ko abenduaren 31n, Gordailuzaineko eurotan izendatutako kontuek emandako interes-tasa %0koa izan da.

2017ko abenduaren 31n, "Diruzaintza – Eskudirutan jasotako garantiak" kapituluak 610 mila euro daude erregistratuta, kreditu-entitateek egindako gordailuenak, Funtsak tresna deribatuekin egindako eragiketen ondorioz entitate horiekin hartutako konpromisoak betetzea garantizatzen (8. oharra).

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

7. Partaideei egotzitako ondarea

Funtsaren ondarea osatzen duten partaidetzak ezaugarri berdinekoak dira, balio nominalik ez duten baina jabeari ondare horren gaineko jabetza-eskubidea ematen dioten ziurtagiri izendunen bidez adieraziak.

Honela kalkulatu da partaidetza bakoitzak 2017ko abenduaren 31n zuen likidazio-balioa:

	2017
Partaideei egotzitako ondarea	<u>296 354,27</u>
Jaulkitako partaidetzen kopurua	<u>50 000,00</u>
Partaidetza bakoitzaren likidazio-balioa	<u>5,93</u>
Partaide-kopurua	<u>1</u>

1082/2012 Errege Dekretuak, uztailaren 13koak, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko erregelamendua onartzen duenak, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, partaide-kopurua ezingo da izan 100etik beherakoa (1. oharra). 2017ko abenduaren 31n, Funtsaren partaide-kopurua legeak ezarritako minimotik behera dago, Funtsa komertzializazio-aldian dagoelako.

Era berean, goian aipatutako 1082/2012 Errege Dekretuak, uztailaren 13koak, 76. artikuluan ezarritakoaren arabera, inbertsio-funtsaren gutxieneko ondarea ezingo da izan 3 milioi euro baino gutxiagokoa (1. oharra). 2017ko abenduaren 31n, Funtsaren ondarea legeak ezarritako minimotik behera dago, Funtsa komertzializazio-aldian dagoelako.

Urteko kontu hauek formulatzeko garaian, erregularizatuta daude bi egoera horiek.

Partaideei egotzitako ondareak 2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra arteko ekitaldian izandako mugimenduak Ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian jasotzen dira.

Ekitaldiko emaitza, Mozkinen gaineko zerga kontuan hartu ondoren, Funtsaren "Partaideak" kontuan banatuko da.

2017ko abenduaren 31n, indibidualki %20tik gorako partaidetza-portzentajea zuten partaideen kopurua partaide batekoa zen ekitaldi-itxieran, eta Funtsaren ondarearen

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

%100,00 hartzen zuen; beraz, partaidetza esanguratsua da 1082/2013 Errege Dekretuaren 31. artikulua ezarritakoaren arabera.

8. Konpromiso-kontuak

Memoriari erantsitako eta beronen zati den I. Eranskinean xehatzen da Funtsak 2017ko abenduaren 31n zeukan deribatuetako inbertsioen zorroa.

2017ko abenduaren 31n, merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren produktu deribatuetako posizio bat du Funtsak (Eurostoxx 50 Price indizeari lotutako call opzioa), 165.000 mila euroko zenbateko nominal konprometitua, 2024ko urriaren 25eko mugagunarekin. Posizio horren xedea 1. oharrean azaldutako errentagarritasun-helburua beteko dela segurtatzea da. Eragiketa horien kontralderdiak BBVA, Banco Santander eta Caixabank dira, entitate zuhurtziaz ikuskatuak eta horrelako eragiketak ohiki eta era profesionalean egiten dituztenak.

Produktu deribatuak Eragiketa Finantzarioen Esparru Kontratu (Contrato Marco de Operaciones Financieras, CMOF) batekin kontratatu dira, Credit Support Annex (CSA) izeneko berme kolaterala erantsita, arriskua minimizatzeke kontralderdiak kiebra egingo balu ere. CSA horren babesean, lagatzaileek (BBVA, Banco Santander eta Caixabank) eskudirua transmititu diote lagapen-hartzaileari (Funtsa), eragiketaren Arrisku Garbiaren gantzia gisa. 2017ko abenduaren 31n, balantzeko aktiboan "Diruzaintza" epigrafean erregistratuta daude garantiak, eta kontralderdiekiko obligazioak pasiboko balantzean "Epe laburreko zorrak" epigrafean, 610 mila euroan.

Era berean, 2017ko abenduaren 31n funtsa komertzializazio-aldian dagoenez (1. oharra), Espainiako Estatuaren bonuen eperako eragiketa batzuk kontratatuta dauzka, 158.127 mila euroko zenbateko nominalekoak; eragiketa horiek oroipen-kontuetako "Konpromiso-kontuak - Deribatuen eragiketa luzeengatik konpromisoak" kapituluan erregistratuta daude. Urteko kontu hauek formulatzeko garaian, eperako erosketa horiek exekutatuta daude.

Errentagarritasun-helburu jakin bat lortzera bideratutako erakundea denez, Funtsak ez dauka 1. oharrean aipatutako mugak bete beharrik tresna deribatuen erabilerari dagokionez.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

9. Bestelako oroipen-kontuak

2017ko abenduaren 31n, honela banatzen da epigrafea:

	2017
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	<u>3 645,73</u>
	<u>3 645,73</u>

10. Administrazio Publikoak eta egoera fiskala

Funtsaren erregimen fiskala Bizkaiko Foru Diputazioaren 11/2013 Foru Arauak, abenduaren 5ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko zergari buruzkoak, arautzen du. Sozietateen gaineko zergarengatik 100eko 1eko karga-tasa ordaindu behar da, baldin eta 35/2003 Legearen (gero egindako aldaketak kontuan hartuta) bosgarren artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako partaide-kopuru minimoa betetzen badu, aipatutako Foru Arauak hirurogeita hemezortzigarren artikuluko bigarren apartatuko a) letran ezarritakoaren arabera.

Ez dago diferentzia esanguratsurik ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaizaren eta zerga-oinarriaren artean.

2017ko abenduaren 31n konpentsatu gabe dauden zerga-oinarri negatiboak 3.645,73 eurokoak dira.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Funtsak ordaindu behar dituen zergetarako egindako deklarazioak ezin dira behin betikotzat hartu harik eta agintari fiskalek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea igaro arte. Funtsak ikuskatzeko irekita dauzka eratu zenetik ordaindu beharreko zerga guztien deklarazioak.

Kontuan izanda aplikatu diren arau fiskalak beste era batera interpreta litzaketela agintari fiskalek eta eztabaidarako bide izan litezkeela, ikuskapenerako zabalik dauden urteetan pasibo fiskal kontingente batzuk egon litezke, baina ezin dira objektiboki kuantifikatu. Hala ere, Sozietate Kudeatzaileko administratzaileen iritziz, pasibo kontingente horiek gauzatzeko probabilitatea oso txikia da eta, edonola ere, ez lukete eragin aipagarririk izango Funtsaren urteko kontuetan, multzoan hartuta.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria

(eurotan adierazita)

Emaitza positiboak izaten direnean, galdu-irabazien kontuko “Sozietateen gaineko zerga” epigrafean erregistratzen du Funtsak mozkinen gaineko zergaren gastua, galera fiskalen konpentsazioaren efektua kenduta, horrelakorik dagoenean. Funtsak emaitza negatiboa izaten duenean, aldiz, ez da sarrerarik sortzen mozkinen gaineko zergarengatik.

11. Bestelako informazioa

Sozietate Kudeatzaileak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 139. artikuluan –eta ondorengo aldaketetan– aurreikusten diren loturadun eragiketak egiten ditu Funtsaren kontura. Horretarako, Sozietate Kudeatzaileak zenbait prozedura ezarri ditu interes-gatazkak saihesteko eta loturadun eragiketak Funtsaren interes eskusiboan eta merkatuko prezioetan egiten direla bermatzeko. Aldizkako txostenetan, CNMVren 4/2008 Zirkularrean –eta ondorengo aldaketetan– ezarritakoa betez, egindako loturadun eragiketei buruzko informazioa ematen da. Era berean, Funtsaren kontura Sozietate Kudeatzailearekin edo Sozietate Kudeatzaileari lotutako pertsona edo entitateekin egindako loturadun eragiketa posibleak sartzen dira, horien izaera, eta eragiketetan hartutako arriskuak eta funtzioak adieraziz.

Gainera, “Jarduera eta arriskuaren kudeaketa” oharrean adierazten da Sozietate Kudeatzailearen taldeko entitateek kudeatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetatik etorritako ostera lagatuko komisioren zenbatekoa, horrelakorik izan bada ekitaldian.

Gordailuzainarekin egiten dituen eragiketei dagokienez, “Diruzaintza” oharrean adierazten da Funtsak Gordailuzainarekin dauzkan kontuak.

Funtsak, dituen ezaugarriengatik, ez du langilerik ezta bulegorik ere eta, duen izaerarengatik, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Sozietate Kudeatzaile batek kudeatu behar du; horregatik, ingurumena babesteari eta langileen segurtasun eta osasunari buruzko gaiak Sozietate Kudeatzaile horri bakarrik dagozkio.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.k 2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko urteko kontuen auditoria-zerbitzuengatik kobratutako zerbitzu-sariak 1 mila eurokoak dira. Ekitaldi horretan, sozietate auditoreak edo hari lotutako enpresek ez dute bestelako zerbitzurik eman, auditoriaz gain.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Urteko kontuen memoria
(eurotan adierazita)

12. Ondorengo gertaerak

2018ko otsailaren 28an, 1. oharrean azaldutako errentagarritasun-helburua bermatzeko garantia eratu du Kutxabank S.A.k. Era berean, 2018ko martxoaren 1ean Funtsak utzi dio komertzializazio-aldian egoteari.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

I. Eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa 2017ko abenduaren 31n (eurotan adierazita)

Azalpena	Dibisa	Zenbateko nominal konprometitua	Arrazoizko balioa	Kontratuaren muga- eguna
“Call” opzioak erostea				
OPZIOA SX5E Index 1	EUR	60 000 000,00	1 134 000,00	2024/10/25
OPZIOA SX5E Index 1	EUR	85 000 000,00	1 598 000,00	2024/10/25
OPZIOA SX5E Index 1	EUR	20 000 000,00	380 000,00	2024/10/25
“Call” opzioak erostea GUZTIRA		165 000 000,00	3 112 000,00	
Eperako beste erosketak batzuk				
BONUA ESPAINIA ESTATUA 2,75 2024-10-31	EUR	25 194 237,58	25 194 237,58	2018/03/01
BONUA ESPAINIA ESTATUA 0,89 2024-10-31	EUR	132 932 403,00	132 932 403,00	2018/03/01
Eperako beste erosketak batzuk GUZTIRA		158 126 640,58	158 126 640,58	
GUZTIRA		323 126 640,58	161 238 640,58	

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Kudeaketa-txostena

Negozioen (merkatuen) eboluzioa, Funtsaren egoera eta eboluzio aurreikusgarria

Faktore ekonomiko erabakigarriak

2017ko urtearen ezaugarri nagusia datu makroekonomikoen tonu ona izan da, maila globalean, batez ere hazkunde ekonomikoaren aldetik. Hazkundera orekatua eta sinkronizatua izaten hasi da maila globalean. Alde horretatik, datozen hilabeteetarako hazkunde-perspektibak hobetu egin dira epealdian zehar, batez ere Europan. Ingurune horretan, banku zentralek erretiratzeko zantzuak erakusten segitzen dute, baina politika lasaiaren barruan betiere (batez ere EBZ eta BOJen kasuan) inflazio-tasen maila apalaren eraginez. Bestalde, plano politikoan, izugarri gutxitu da ziurgabetasuna urtean zehar, Europa aldean batez ere. Macronek Frantzian lortutako garaipenak esplikatzeko du hobekuntza hori zati handi batean.

Merkatu finantzarioei dagokienez, urtearen ezaugarria arrisku-aktiboen portaera ona izan da, batez ere errenta aldakorraren zatian. Makroekonomian gertatu den hobekuntza, lehen aipatua, enpresen irabazietara ere hedatu izanak esplikatzeko du neurri handi batean portaera hori.

Errenta aldakorraren aldetik, indize nagusi guztiek irabazi handiekin amaitu dute ekitaldia, bereziki azpimarratzekoak dira AEB (S&P 500 +%19,42, Nasdaq 100 +%31,52) eta emergenteen aldea (Emergenteetako MSCI +%34,35). AEBn, urte-amaieran iragarritako zerga-jaitiera laguntza handia izan da indize horientzat. Bestalde, aipatu beharrekoa da Europako indizeen portaera okerragoa (Eurostoxx50 +%6,49, Ibex35 +%7,40). Euroaren sendotasuna eta osaera sektorial desberdina (pisu txikiagoa konpainia teknologikoetan) izango lirake eboluzio okerrago horren arrazoia.

Errenta finkoaren aldean ere azpimarratzekoa da arrisku-aktiboen hobekuntza, batez ere herrialde emergenteetako zorraren zatian eta, neurri txikiagoan, kreditu-diferentzietan. Europako periferiako zorrari dagokionez, portaera ez da hain homogenea izan, eta, alderdi positiboan, Portugalen hobekuntza handia izan da nabarmenena, S&P eta Fitch-ek rating-ak igo ondoren. Herrialde nagusien zor subiranoari dagokionez, portaera dibergentea izan dute kurba amerikarrak (malda txikiagoa, igoera handia bi urterakoaren BETean, 70 op) eta alemaniarrek (malda handiagoa, igoera orokorra BETetan, 22 op 10 urterakoan, 14 op 2 urterako tramoan). FEDen eta EBZren portaera dibergenteak (tasak igo dituzten lehenengoak eta aktiboak erosi bigarrenak) esplikatzeko du batez ere eboluzio desberdin hori.

Azkenik, dibisei dagokienez, euroaren sendotasuna izan da urteko gai aipagarriena (%14,15 eta %9,88 dolarrekiko eta yenarekiko, hurrenez hurren).

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Kudeaketa-txostena

2018rako aurreikuspenak

1. Koiuntura ekonomiko globala

Munduko ekonomia nagusien hazkunde ekonomikoko espektatibak ondoko taulan azaltzen dira:

	2017	2018	2019
Crecimiento mundial	3,70%	3,90%	3,90%
Economías avanzadas	2,30%	2,30%	2,20%
EE.UU.	2,30%	2,70%	2,50%
Eurozona	2,40%	2,20%	2,00%
Alemania	2,50%	2,30%	2,00%
Francia	1,80%	1,90%	1,90%
Italia	1,60%	1,40%	1,10%
España	3,10%	2,40%	2,10%
Reino Unido	1,70%	1,50%	1,50%
Japón	1,80%	1,20%	0,90%
Economías emergentes	4,70%	4,90%	5,00%
Rusia	1,80%	1,70%	1,50%
China	6,80%	6,60%	6,40%
India	6,70%	7,40%	7,80%
Brasil	1,10%	1,90%	2,10%
México	2,00%	2,30%	3,00%

Aurreko apartatuan esan den bezala, ingurune ekonomikoa nabarmen hobetu da azkeneko hilabeteetan zehar. Hala ere, ingurunean ziurgabetasuna sumatzen da oraindik, eta alderdi hauek nabarmentzen dira aurtengo urterako:

-) **AEB:** inflazioa eta politika fiskala dira ekonomia amerikarraren inguruko eztabaidagai nagusiak. Kasu bietan, FEDek bi eremu horietan izango duen jokabidea da ziurgabetasunaren iturria.
-) **Europa:** Azken hilabeteetan ikusi den hobekuntza kontsolidatzeko urtea izan beharko luke 2018ak, batez ere zikloan atzera geratzen ari ziren herrialdeetan, hala nola Frantzia eta Italia. Bestalde, arretaz zaindu beharko da euroaren balio-irabazteak hazkunde ekonomikoa eta EBZren jokabidean izan lezakeen inpaktua.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Kudeaketa-txostena

-) **Emergenteak:** lehengaietan eta munduko hazkunde-tasan izandako hobekuntzak emergenteen munduari laguntzen jarraitu beharko luke. Ziurgabetasun nagusia AEBk iragarritako politika protekzionistetan dago.

2. Merkatuen eboluzioa

Lehen marraztutako panorama makroekonomikoak arrisku-aktiboen alde posizionatzera gonbidatzen du, batez ere errenta aldakorren aldetik. Ziurgabetasun handiena banku zentralen jokabidean dago (FEDenean batez ere) eta horrek tasen kurban izan lezakeen eraginean, arrisku-aktiboetan dauden balorazio-mailei buruzko zalantzak sorraraz litzakeelako. Eskualde mailan, merkatu emergenteek beren portaera onari eutsi beharko liokete, hazkunde globalaren sendotasunak lagunduta. Era berean, Europari mesede egin beharko lioke balorazioaren aldetik gainerako area geografikoekiko eskaintzen duen deskontuak.

Kurba-tasari dagokionez, zorraren BETek igotzen jarraitu beharko lukete, batez ere kurba europarrean, orain dauden mailek bateraezinak ematen dutelako area horretan dagoen hazkunde ekonomikoarekin eta inflazioarekin.

Funtsak tresna finantzarioak erabiltzea

Duen jarduera kontuan izanda, Funtsak tresna finantzarioak erabiltzen ditu bere helburu soziala lortzeko (ikus Memoriako 1b eta 5. oharak), eta horretarako doitzen eta egokitzen ditu bere helburuak eta prezio-arriskua, kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta diru-fluxuen arriskua kudeatzeko politikak, indarrean dagoen araudiak (35/2003 Legea, 1082/2012 Errege Dekretua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ateratako Zirkularrak) ezarritako muga eta koefizienteen eta Funtsaren Liburuxkan ezarritako inbertsio-politikaren arabera.

2017ko ekitaldiaren itxiera ondorengo gertaera garrantzitsuak

2018ko otsailaren 28an, 1. oharrean azaldutako errentagarritasun-helburua bermatzeko garrantia eratu du Kutxabank S.A.k. Era berean, 2018ko martxoaren 1ean Funtsak utzi dio komertzializazio-aldian egoteari.

Ikerketa eta garapena

Helburu soziala kontuan izanda, Funtsak ez du ikerketa eta garapeneko jarduerarik bat ere egin.

Kutxabank Garantizado Bolsa 5, Fondo de Inversión

2017ko azaroaren 29tik abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko Kudeaketa-txostena

Akzio propioak eskuratzea

Ez da aplikagarria.